

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 10/2013

(...)eko ZUZENDARI NAGUSI (...) JAUNAK AURKEZTUTAKO GAIARI BURUZKO ERABAKIA, (...)eko UDALAK SUSTATUTA JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAN EGIN NAHI DIREN UDAL-PLANGINTZAKO LANEI BURUZKO TXOSTENAK EGITEAZ, KONTUAN IZANDA (...) JAUNA UDAL HORRETAKO ZINEGOTZI ERE BADELA.

1.- 2013ko azaroaren 28an, interesatuak kontsulta bat egin zion Etika Publikorako Batzorde honi (aurrerantzean EPB), argitu nahian ea etikoki zilegi den berak arduradun exekutibo nagusi gisa parte hartzea udalak sustatuta jabari publiko hidraulikoan egin nahi diren udal-plangintzako lanei buruzko txostenak egitean, kontuan izanda zinegotzi dela udal horretan.

2.- EPB honi esku har dezan eskatuz posta elektronikoz bidalitako mezuan, interesatuak dio 2011ko ekaineko udal-hauteskundeetan hautagai-zerrendetako batean parte hartu zuela, eta hautesleek emandako botoak tarteko, udal horretan zinegotzi dela gaur egun.

3.- 2013ko urtarrilaren 30ean zuzendari izendatu zuten, eta kargu horri dagokion eskumenetako bat jabari publiko hidraulikoan egin nahi diren udal-plangintzako lanei buruzko txostenak egitea da.

4.- Zuzendari nagusi denetik, udalak sustatutako udal-plangintzako lanei buruzko horrelako bi txosten egin ditu. Agiri horiek izenpetu aurretik, alabaina, aholkularitza juridikoari kontsultatu zion gai hori, eta haiek azaldu ziotenez, “bateraezintasunik batere ez dago”, eta, gainera, hain zuzen ere zuzendari nagusi denez gero, berak du txosten horiek izenpetzeko eskumena eta, beraz, horretarako betebeharra.

5.- Hala eta guztiz ere, interesatuak jakin nahi du ea udalak sustatuta egin nahi diren lanei buruzko txostenetan berak parte hartzeak nolabait talka egiten ote duen Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodearekin (aurrerantzean EJK).

6.- EJKren 16.4 ataleko bigarren tartekian jasotako komunikazio telematikoko mekanismoak baliatuz, hauxe da EPBk hartutako

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.- EJK, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartua 2013ko maiatzaren 28an egindako bileran, politikaren zentzu etikoa indarberritzeko xedez sortu zen, eta herritarrek beren erakundeetan konfiantza berreskuratzea du jomuga.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazlea osatzen duten kargu publikodunek zer jokabide, jarrera eta portaera bete –edo saihestu– behar dituzten zehazten du kode horrek, horien jarduerak, publikoak zein pribatuak, bat etor daitezen dokumentu horretan aurrez finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren azken xedea osotasuna edo integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, eta orobat, Jaurlaritzaren irudi instituzionala babestea, haren eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek erakundeetan duten konfiantza ez gutxitzea.

2.- EJK oinarrizko bost balioen inguruan taxutu da –Osotasuna, Bikaintasuna, Politika eta kudeaketa bat etorraraztea, Lidergoa eta Berrikuntza–, eta funtsezko sei printzipioen inguruan: Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna, Kudeaketari lotutako erantzukizuna, Gardentasuna eta gobernatze irekia, Onestasuna eta desinteres subjektiboa, Errespetua eta Eredugarritasuna.

Balio eta printzipioen esparru horretan, kodeak jokabide, jarrera eta portaera ugari aipatzen ditu, eta horiek dira, hain zuzen ere, EPB honek erreferentzia gisa ezarri behar duen parametroa, beren borondatez kodeari atxikitako kargu publikodunek edo kodearen zehaztapenak egiaz betetzea nahi duten hirugarrenek batzorde honen esku jartzen dituzten auzi eta dilema etikoei erantzuteko orduan.

Horri dagokionez, kodeak 16.3 ataleko lehenengo puntuan ezartzen du EPB izango dela “oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, kode



honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du". Era berean, atal bereko bosgarren puntuan ezartzen du batzordearen ardura izango dela "Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko keaxak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea".

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKO GAIA

1.- Interesatuak EPB honek azter dezan aurkeztutako auziak interes-gatazken eremura garamatza. Baina oraingoan aztertu beharrekoa ez da norbaiten interes pribatuak interes publikoarekin talka egiten ote duen, eta horixe da, hain zuzen ere, EJKk interes-gatazkatzat daukana, 11.2 atalean zehazten duenez: "Goi-mailako kargudunek beren postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan esku hartzean sortzen dira interes-gatazkak". Aitzitik, bi interes publikoren arteko balizko talka dugu oraingoan aztergai: bata, autonomia-erkidegoaren mailakoa, interesatuak duen karguarekin lotua; eta bestea, udal-mailakoa, udaleko zinegotzi izatearekin lotua.

2.- EJKn ez dago horrelako egoeretarako berariazko aurreikuspenik. Kodearen 11.3 atalean goi-mailako kargu publikodunek nahiz parekatuek interes-gatazkekin lotuta bete –edo saihestu– beharreko zenbait jarrera, jokabide eta portaera zerrendatzen dira, baina kontuan hartu diren egoera guztietan interes pribatuaren eta interes publikoaren artekoa da talka, egiazkoa nahiz balizkoa: goi-kargudun baten interesa edo harekin harreman pertsonal edo familiar estua duen hirugarren batena legoke alde batean, eta bestean, interes publikoa, arduradun publiko orok bere kargua bete bitartean zaindu eta babestu beharrekoa. Lehenengo puntuan dio, hain zuzen ere, inoiz ere ez dituztela erabiliko beren pribilegio edo eskumen instituzionalak "onuraren bat emateko hirugarren pertsonen edo erakundeen alde, Eusko Jaurlaritzarenak edo haren erakunde instrumentalenak ez diren interesengatik"; bigarrenak berariaz aipatzen du "interes propioek eta interes publikoak talka" egitea gertatuz gero egin beharrekoa; hirugarrenak dio ez duela "inolako negoziarik edo jarduerarik egingo, zuzenean edo zeharka talka egin badezake interes publikoekin, edo zalantzan jar badezake erabakiak hartzeko prozesuaren [...] objektibotasuna"; eta laugarrenak, azkenik, laburbildu egiten du aurreko puntuetan finkatutako doktrina, labur eta motz errepikatuz oinarrizko zer arauk biltzen duen EJKren agindua: "Balizko interes-gatazka batean nahas daitezkeen kargu publikodun eta parekatuek lehentasuna eman behar diete beti interes publikoei". Bistan denez, hipotesi modura ere ez da kontuan hartu bi interes publiko elkarren aurkako edo antagoniko gertatzea.

3.- EJKk horri buruz ezer ez badio ere, bi interes publikoren artean gatazka gertatzea ez da



inolaz ere fikzioaren eremuko kontua. Aitzitik, eta aukera hori hemen zehatz-mehatz aztertzeko inolako asmorik gabe, ageriko gauza dirudi interes publikoen arteko bi gatazka mota bereiz daitezkeela, oinarri-oinarrian bederen. Goi-kargu publikodun edo parekatu bati interes publikoen arteko gatazka sortuko litzaioke, adibidez, elkarren aurkako gertatuko balira bere postuari dagozkiolako babestu behar dituen interes publikoak, batetik, eta, bestetik, kargu publikodun edo parekatu hori Eusko Jaurlaritzari edo haren Administrazio Instituzionalari atxikita edo lotuta dagoen edo haren mendeko den erakunde instrumental bateko gobernu-organoetan dagoelako (goi-kargu bat duela-eta, eskuarki) zaindu beharrekoak. Gerta baitaiteke kargu publikodun bati EAEko Administrazio nagusiari atxikitako, lotutako edo haren mendeko erakunde instrumental batean zuzendaritza- edo gobernu-eginkizunen bat betetzeko ardura ematea –daukan karguari jarraiki, hain zuzen–, eta gero, noiz edo noiz, batean babestu beharreko interes publikoak eta bestean zaindu beharreko interesak –haiek ere publikoak– bat ez etortzea. Egoerarik nabariena honelakoetan gertatzen da: Eusko Jaurlaritzako goi-kargu batek berekin dakarrenean –karguari dagozkion beste hainbat eginkizunekin batera– zuzenean edo zeharka Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mende dagoen sozietate publiko baten organo kolegiatu batean zuzendaritzako ardurak betetzea edo egotea.

Bigarren gatazka motak interesatuari egokitutako egoerara garamatza: Eusko Jaurlaritzako goi-kargudun edo parekatu batek aldi berean beste kargu bat ere betetzea –hautapen bidezkoa, gehienetan– antolaketaren aldetik Eusko Jaurlaritzarekin inolako loturarik edo mendetasunik batere ez duen beste erakunde publiko batean.

4.- Aurreko puntuan aipatu ditugun bi gatazka-motetan lehena alde batera utzita –ez baitu zerikusirik orain aztergai dugun egoerarekin– esan dezagun Eusko Jaurlaritzako goi-kargudun bati aldi berean udal batean zinegotzi-lanetan ere aritzeagatik interes publikoen artean sor dakizkiokeen gatazkek hiru modutan konpon daitezkeela, *prima facie*:

a) bateraezintasunen teknikara jota, eta horrenbestez, goi-kargudunak bere gain hartuak dituen ardura publikoetako bati hasieratik uko eginda;

b) gairen batek bi erakundeetan eragiten duela jakindakoan horietako batean inhibitzeko edo parte hartzeari uko egiteko betebeharra ezarrita; edo

c) tartean diren interes publikoak zehatz-mehatz hierarkizatuta, goi-kargudunak edo parekatuak argi eta garbi jakin dezan zer interes publikok duen lehentasuna babestu behar dituenen artean talka sortzen den orotan.

5.- Bateriaezintasunen erregimenari dagokionez, EJKren 14. atalak –kudeaketaren erantzukizunari buruzko jokabide era portaerak zehazten dituenak– hauxe baino ez dio: “kargu publiko bat betetzen dutenek arduraldi osoa eta eskusiboa eman behar diote dagozkien funtzioak betetzeari, aplikatu beharreko legedian jasotakoaren arabera”. Bistan denez, ordenamendu juridikoko arauari berariazko arau osagarriak gehitu beharrean, aplikatu beharreko legedira bidaltzen gaitu EJKk puntu honetan, jokabide-arauak zein diren finkatzen duenean. Horrek bi legetara garamatza: batetik, Legebiltzarrak ekainaren 30ean onartutako 7/1981 Legea, Jaurlaritza Legeari buruzkoa (aurrerantzean JL); eta 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen (aurrerantzean TAOAL).

6.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko goi-kargudunei dagokienez, JLren 32. artikulua dio kargu horiek betetzea bateraezinekoa dela honako beste hauekin: “Gorte Nagusietan parlamentari gisa edo Erresumako Gobernu edo Administrazioako organo edo erakundeetan herri-egitekoetan jardutearekin eta ahaldun nagusi, foru- diputatu eta Euskal Autonomia Erkidego barruko berrogeita hamar mila biztanletik gorako hiriren bateko alkate izatearekin. Sailburuordetza edo zuzendaritza ezingo dira Eusko Legebiltzarkide izatearekin batera egin”. Ez gara hemen hasiko (...)ren izaera juridiko berezia aztertzen, bertako zuzendaritza-karguetan daudenen estatutua Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen pareko baitira funtsean, baina transkribatu berri dugun arauan ezarritakoari jarraiki, agerikoa da Eusko Jaurlaritzan goi-kargu bat izatea erabat bateragarria dela aldi berean udalerrri batean zinegotzi –eta ez alkate– izatearekin, oso urrun baitago berrogeita hamar mila biztanleko mugatik.

7.- Toki-araubideari buruzko legeak ere –TAOALen 75. artikuluan eta hurrengoetan– ez du inolako bateraezintasunik ezartzen zinegotzi batek –aztergai dugun egoeran bezala ez arduraldi eskusiborik ez partzialik izanda– aldi berean tokian tokiko autonomia-erkidegoko administrazioan goi-kargu bat izatearekin. Hori guztia kontuan izanda, hauxe ondoriozta daiteke: “aplikatu beharreko legedian” jasotako bateraezintasun-erregimena urratzen ez duenez –haraxe bidaltzen baitu gai honetan EJKk–, interesatua zuzendari nagusi eta aldi berean zinegotzi izateak ez du urratzen EJK.

8.- Lehenago 2. puntuan esan bezala, EJKk ez dio berariaz mugarik jartzen goi-kargudun edo parekatu horrek gai horretan parte hartzeari, goi-kargudun edo parekatu batek beste ardura politikoren bat ere baduela-eta kargu bat nahiz bestea betez babestu beharreko interes publikoak gairen batean elkarren aurkako gertatzen badira. Interes publikoen arteko gatazka ez du berariaz lantzen EJKk. Edo bestela esanda, egoera hori ez da berariaz agertzen EJKn

jasota dauden aurreikuspenetan. Dena den, horrek ez du esan nahi goi-kargudunek edonola joka dezaketenik horrelako egoeretan, EJKren asmoa ez baita –eta ezingo luke, gainera– indarrean den ordenamendu juridikoa aplika ez dadin lortzea edo erraztea eta goi-kargudunak hura betetzetik salbuestea. Gainera, guztiz zentzugabea litzateke EJK eskakizun etikoko mugak jartzen hasi eta eremu juridiko-administratiboan indarrean diren arauetan finkatutakoak baino muga txikiagoak jartzea. Hauxe ondoriozta daiteke, beraz: udal bateko zinegotzi ere badiren Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunek eta parekatuek bai lehenei bai bigarrenei aplikatzekoak diren legeetan ezarrita dagoen inhibizio-erregimena eta parte hartzeari uko egiteari buruzkoa bete behar dute, gutxienez.

9.- 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak (aurrerantzean HAAJAPE), 28. artikuluan zehatz zerrendatzen du “administrazioetako agintari edo langileek” zer egoeratan edo zer arrazoi direla tarteko ez duten parte hartuko izapidetu beharreko prozeduretan:

- a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
- b) Laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo baltzu interesdunen bateko administratzaileekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, edo horien bulego berekoa izatea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkarietza edo mandataritza.
- c) Aurreko idatz-zatian aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
- d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritzea.
- e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izatea.

Bestalde, TAOAren 76. artikulua honela dio: “toki-korporazioetako kideek ez dute eztabaidetan, bozketan, erabakietan eta betearaztean parte hartuko gaia edozein dela ere, administrazio-prozeduraren eta herri-administrazioaren kontratazioen legedian aipatutako arrazoiren bat gertatzen denean. Arrazoi horiek tarteko direla toki-korporazioetako kideek jarduten badute, eta jarduera erabakigarria izan bada, beren partaidetzaz onartutako egintzak baliogabeak izango dira”.

Horrenbestez, interesatuak ez du EJK urratzen zuzendaritza nagusiak egin beharreko txostenak berak pertsonalki egitean eta izenpetzean –bera baita kargu horren titularra–, ezta txosten horiek udalak sustatuta jabari publiko hidraulikoan egin nahi diren lanei buruzkoak direnean ere, nahiz eta udal horretako zinegotzi ere baden, baldin eta garbi badago berak egin eta izenpetutako txostenetan ez dagoela hark parte ez hartzeko arrazoirik, ez HAAJAPeren 28. artikuluan jasotakorik, ez TAOALen 76. artikuluan zehaztutakorik.

10.- Aurreko puntuan azaldutako gogoeta hori osatu beharra dago, alabaina, ezin utz baitaiteke aipatu gabe EJKk zeinen garrantzi handia ematen dion goi-kargudunek eta parekatuek egoki jokatu beharrari, herritarrek ez dezaten izan haien integritateari edo osotasunari eta inpartzialtasunari buruzko inolako zalantzarik edo susmorik. Lehenago ere esana dugunez, Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako kodeak behartu egiten du egiaz interes-gatazka baten aurrean dagoen kargu publikodun oro zenbait jokabide ez izatera eta zenbait jardun ez egitera. Baina haratago ere badoa, helburu baititu, batetik, “guztiz baztertea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren [...] mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako **edozein susmo edo zalantza**” (5.2.4 atala), eta, bestetik, kargu publikoek nahiz parekatuek inoiz ez egitea “persona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo **faboritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo** pitz dezakeen ezer” (6. atala). Nahikoa da goi-kargudun edo parekatuaren jardunbideak arrazoizko zalantza bat sortzea edo sortu ahal izatea haren onestasan, inpartzialtasun, osotasun edo objektibotasunari buruz, kodearen 5.2.4 eta 11.3 atalek hizpide dituzten kautelazko edo badaezpadako mekanismoak abian jartzeko: parte hartzeari uko egitea edo, bestela, aldez aurretik EPB honi galdetzea.

Beraz, nahiz eta interesatuaren kasua ez dagoen zehatz-mehatz jasota HAAJAPeren 28. artikulua eta TAOALen 76.ak karguei edo agintariei parte hartzeari uko egin diezaioten exijitzen dieten egoeretan, horrek ez du esan nahi kontuan hartu behar ez duenik zenbait egoeratan parte hartzeari uko egitea; batik bat, berak parte hartzeak arrazoizko zalantza edo susmoa sor badezake bere mesederako ariko ote den edo “edozein motatako interes partikularrek eragindakoa” ote den. Horri dagokionez, eta EJKk goi-kargudunei eta parekatuei “osotasun-irudia” zaindu beharra ezartzen diela eta, aipatzekoa da betebeharrari hori zenbait jarduni ere badagokiela, 6. ataleko 1. puntuan ezarritakoari jarraiki erabat baztertzekoa baita “persona edo **erakunde publiko** edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda” jokatu delako susmoa pitz dezakeen jardun oro. Alde horretatik, aztergai dugun egoeran faboritismoz jokatu delako susmoa egon liteke, goi-kargudun batek “erakunde publiko” bati faborezko tratua eman izanean oinarrituta.

11.- Azkenik, gogora ekarri behar da EJKk 11.3 ataleko laugarren puntuan zehatz-mehatz esan



arren Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunek eta parekatuek “lehentasuna eman behar” dietela “beti interes publikoei”, gero uko egiten diola gatazkan gerta daitezkeen interes publiko horiek hierarkizatzeari, eta interes publiko eta pribatuetarako ezarria duen lehentasun-arauaren pareko bat finkatzen duela, besterik gabe. Guztiz normala eta ulergarria da hori, bestalde, ez bailitzateke inolaz ere zentzuzkoa izango goi-kargudun bati bere jardunean zer interes publiko ager dakizkiokeen *a priori* pentsatu eta orokorrean baliagarri gertatzeko helburuarekin hierarkizatzea. Beraz, interes publikoen arteko gatazkak sortzean ere ez litzateke batere zentzuzkoa izango beti eta egoera guztietan Eusko Jaurlaritzak babestu beharreko interes publikoei emanarazi nahi izatea lehentasuna; edo aztergai dugun gaiari gagozkiola, interesatua udalak sustatuta jabari publiko hidraulikoan egin nahi diren lanei buruzko txostenak egiten hasitakoan, beti eta egoera guztietan Eusko Jaurlaritzak babestu beharreko interes publikoek izatea lehentasuna, eta ez udalak babestu beharrekoek.

12.- Azaldutako guztia kontuan izanda, interesatuari gomendio hau ematen diogu: zuzendari nagusi gisa udalak sustatuta jabari publiko hidraulikoan lanen bat egiteko txostenak egitea egokitutakoan, ardura dadila bere ikuspegia egiaztatzeaz eta bere erabakiak objektiboki oinarritzeaz, bai dokumentazioaren aldetik egin beharreko ahaleginaz bai beharrezkoak diren txosten teknikoek, aginduko diren egintzak egokiak eta inpartzialak izan daitezen, eta oso gogoan izan dezala EJKk 6. ataleko 4. puntuan jasotako agindua: goi-kargu eta parekatuen “erabaki, ebazpen eta ekintza guztiak informazio fidagarrian oinarrituta egongo dira (txostenak, azterlanak, proiektuak, irizpenak), bai eta ebatzi beharreko gaiari lotuta eskura dauden datuen azterketa objektiboetan ere. Horretarako, aholkularitza teknikoa baliatuko da, bitarteko propioen eta, hala egokituz gero, kanpoko bidez, arazoak modu objektiboan hartzen eta behar bezala konpontzen laguntzeko”. Horrela baino ez du lortuko bere jardunarekin udalari mesede egin diezaiokeelako susmo edo zalantza oro erabat uxatzea, 10. gogoetan azaldu dugunaren ildotik bederen.

Horren guztiaren ondorioz, EPBk erabaki hau hartzen du:


ERABAKIA:

LEHENENGOA: Interesatuak ez du EJK urratzen aldi berean zuzendari nagusiaren kargua eta udal bateko zinegotziarena izategatik (azken horretan dedikazio osorik edo partzialik ez

duela).

BIGARRENA: Interesatuak ez du EJK urratzen zuzendaritza nagusiak egin beharreko txostenak berak pertsonalki egitean eta izenpetzean –bera baita kargu horren titularra–, ezta txosten horiek udalak sustatuta jabari publiko hidraulikoan egin nahi diren lanei buruzkoak direnean ere, nahiz eta udal horretako zinegotzi ere baden interesatua, baldin eta garbi badago interesatuak egin eta izenpetutako txostenetan ez dagoela hark parte ez hartzeko arrazoirik, ez HAAJAPeren 28. artikuluan jasotakorik, ez TAOALen 76. artikuluan zehaztutakorik.

HIRUGARRENA: Nahiz eta interesatuaren egoera ez dagoen zehatz-mehatz jasota HAAJAPeren 28. artikulua eta TAOALen 76.ak karguei edo agintariei parte hartzeari uko egin diezaioten exijitzen dieten egoeretan, horrek ez du esan nahi kontuan hartu behar ez duenik zenbait egoeratan parte hartzeari uko egitea; batik bat, berak parte hartzeak arrazoizko zalantza edo susmoa sor badezake bere mesederako ariko ote den, “edozein motatako interes partikularrek eragindakoa” ote den edo “pertsona edo **erakunde publiko** edo pribatu batzuen alde faboritismo-nahiak eraginda” jokatuko ote duen.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko presidentea

Gasteizen, 2013ko abenduaren 9an.